



## Gizarte Segurantzako afiliazioak gora egin du berriro

Afiliazioa Gizarte Segurantzaz  
Urte bakoitzeko urtarrila. Milakoak



Iturria: Gizarte Segurantza.

**Aurtengo lehen hilabetea, Gizarte Segurantzako afiliazioa %1,1 igo zen EAEn, aurreko urteko aldi beraren aldean.** Horrela, azken hilabeteetan jasotako milioi bat afiliazio baino gehiagoren kopurua finkatuta geratu da. Zehazki, urtarrilean 1.014.000 afiliazio baino gehiago zenbatu ziren, hilabete horretarako serie historiko osoan inoiz jaso den erregistrorik onena baita.

## Langabezia erregistratua jaitsi zen 2023ko urtarrilarekiko

Erregistratutako langabezia  
Urte bakoitzeko urtarrila. Milakoak




Iturria: Lanbide.

**Pasa den urtarrilean, Lanbideren bulegoetan erregistratu zen langabezia %1,7 gutxitu zen aurreko urteko hil beraren aldean.** Hala, lau hilabetez jarraian urte arteko tasa negatiboak jaso dira. Balio absolutuetan, langabeen kopurua 110.000ren azpitik geratu zen, 2008tik urtarril batean izandako erregistrorik txikiena.



## Industriaren ekoizpena %0,3 hazi zen Euskadin

Industria produkzioaren indizea (IPI)  
Urte bakoitzeko abendua




Iturria: Eustat.

Abenduan, EAEko industriaren ekoizpena %0,3 hazi zen aurreko urteko hil beraren aldean. Bilakaera hori, batez ere, osagai energetikoan izandako hazkunde nabarmenak eragin zuen (%7,7). Aitzitik, 2024 osoko balantzeak industria jardueraren %0,9ko jaitsiera utzi du.

## Txikizkako merkataritza %4,0 hazi zen EAEn

Txikizkako merkataritza guztira  
Urte bakoitzeko laugarren hiruhilekoa. Indizea



Iturria: Eustat.

Eustaten arabera, 2024ko laugarren hiruhilekoan EAEko txikizkako merkataritzako salmentak %4,0 igo ziren, aurreko urteko aldi beraren aldean. Serie historiko osoan lortutako baliorik handiena da. Igoera elikagaien salmentan (%4,7) eta gainerako produktuetan (%4,6) oinarritu zen, baina gasolina zerbitzuek aurreko urtean baino gutxiago saldu zuten (-%3,2).